

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko azaroaren 10a

*



Xabier Goñi, munduan bidaiari

■ Munduak ez du sekreturik Xabier Goñi nafarrantzat. Hamaika bidaiatan zehar, beste hamaika leku ezagutu ditu eta guztietan, abentura, mendizaletasuna eta antropologiarekiko maitasuna batu nahi izan ditu. Amaitu berri

zaigun uda honetako azken bidaiak Hego Amerikara eraman du Xabier Goñi, aspaldi nahi zuen bezala. Han, XVI. mendiaz geroztik inork zeharkatu ez zuen inken erret bidea berreskuratu du.

Ospea eta ahanztura

Lur deslaia

PILI YOLDI



Bizitzak sekulako ustekabekoak ematen dizkigu ospetsu guztiz ahaldunen garai hauetan. Gu bezalako jende arruntak ez du sekula pentsatu hain urrutiko fama distiratsua bere alde txarrak dituenik. Txarrak baino gehiago beltzak esango nuke nik. Bestela, galdeiozu orain dela urte gutxi arte Nafarroako liderrik zintzoenak izan direnei: Gabriel Urralbururi eta Antonio Aragoni, esate baterako.

Nafarroako PSOEko perlarik kuttunenak, aho bateko onespina izatera ohituak, bakezaleak, askatasunaren paladinak, herritarren eskubideen defenditzaileak sutsuenak... lur azpian ezkutatu nahian ditugu orain.

Non ibiliko ote dira? Hain famatua izan ondoren, zaila izango da gero gure mundu txiki honetan ezkutuka ibiltzea.

Urralburu Menorcako etxetxora joango zen agian. Eta Aragon? Kokospean bizarria jarrita aterako al da kalera?

Txantxak alde batera utzita, G.U. eta A.A.z ezer jakin gabe hilabeteak, ia urteak, pasatu ondoren —eta Iruñeko Auzitegiko atzeko atean, aspertuta eta hoztuta, ez dakit zenbat goiz eta arratsalde eman eta gero— hauxe esan zidan kazetari lagun batek: «Aragonek epailearen aurrean deklaratu du gaur. Penatu egin nau hain goibel ikusteak».

Karitatea irakasten zigun amonak barka iezadala, baina Aragon Nafarroako Gobernuako kontseilari zenean zenbait mediotako kazetariak prentsaurrekoetan jaso zituzten irainak eta tratu txarrak ez ditut ahaztu nahi. Ez ditut ahaztu nahi «gai konfliktiboak» ematen zituen erantzun bortitzak, ezta mespre-

zuz beteriko keinuak ere. Lapurrak, zintzotasuna irakasten.

Garai hartan ez genuen uste —are gutxiago beraiek— etorkizunean hain denboraldi beltzak pasatuko zituztenik. Zenbat buelta ematen ditu bizitzak! Ospetsua, ezkututzen. Goian zegoena, zeharo kakaztuta, eta Nafarroako alderdirik sendoena, bozeramaile itxuro sorik gabe. Hau garaia gurea.

Hala ere, okerrera ez da idolorik gabe geratzea. Horrek baino gehiago izorratzen nau gure lapurrik haundienak eta azkarrenak izateko aukera paregabea galdu dutela jakiteak. Egia aitortu behar badut, nire aitaren zalantza eta amorru berbera daukat: politikan eta liburu artean hainbeste urte pasatu ondoren, ez al dute arrastorik utzi gabe lapurtzeko adina ikasi? X

GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Iruñea: Pintzel galerian Jose Luis Mayor margolariaren lanak daude ikusgai 25era bitartean. Goizean 10etatik 13.30etara dago zabalik eta 16.00etatik 20.00etara arratsaldean. Larunbat eta jaiegunetan itxita dago.

Lacava kafetegi galerian Carlos Cirizaren margoak ikusgai daude. Azaroaren 19ra bitartean.

Zizur Nagusia: Kultur Etxean Maria Soledad Melero Moreleren eskulturen erakusteta dago zabalik igandera arte. Lanak 12.30etatik 14.00etara eta 19.00etatik 20.30etara ikus daitezke.

García Castañón aretoan Daniel Txopietaren lanak ikusteko aukera dago azaroaren 19ra arte. Margo erakusketa, lanegunetan 19.30etatik 21.00etara eta jaiegunetan 12.30etatik 14.00etara.

Burlata: Udaletxeko kultur aretoan *Transvisiones* izenburupean Pablo del Barcoren margoak ikusteko aukera dago. Erakusketa azaroaren 16ra bitartean dago zabalik asteartetik larunbatera 19.00etatik 21.00etara eta igandeetan 12.00etatik 14.00etara. Astelehenetan aretoa itxita dago.

KONTZERTUAK

Zangoza: Geminis dantzalekuan Los Suaves taldeak joko du bihar, gaueko 11tan.

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolan La viuda negra taldeak kontzertua eskainiko du bihar, gaueko bederatzietatik aurrera. Sarrerak 600 pezeta balio du.

Barañain: Retegi pilotalekuan, Lin Ton taun, Baldin Bada, Urtz, Fliiter, Begira eta Drindots taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko 10.30etan. Sarrerak 800 pezeta balioko du aurretik erosiz gero eta 1.000 bertan.

ANTZERKIA

Añorbe: Udazkeneko Bira 95 egitarauen barruan Producciones Teatrales Marmol konpainiak *Lección de italiano* obra antzetzuko du, arratsaldeko 8etan zinema zaharrean.

Urdiain: Frontoian Udazkeneko Bira 95eko ekitaldien barruan ere Zirko Ttipia taldeak *Munduko malabaristenak* taularatuko du arratsaldeko 8.30etan.

ZINEMA

Tafalla: *El Jardín mágico de Stanley* filmea emango dute bihar eta etzi, bertako Kultur Patronatuak antolatuta. Sarrerak 100 pezeta balioko du eta pelikula arratsaldeko 3.45etan hasiko da.

BERTSO SAIOAK

Leska: Arrano elkarteak, Xaito txapelketako bertso saioa izanen da gaur, arratsaldeko zortzi terdietatik aurrera. Lehen saioan bederatzitik bertsolari ariko dira.

nafarkronika

Jon Alonso

Gutztiz biblikoa

Gure Jaungoiko guztiz ahaldunak, ikusirik neskak mutilen gainean, mutilak nesken gainean, neskak nesken gainean, mutilak mutilen gainean, neskak mutilartekoetan edo mutilak neskartekoetan, edonork edonorekin ez ezik, animaliekin, eta are, edozerekin aplakatzentz zituela bere grina lohitsu eta likitsak, gatzeko estatua bihurtu zituen. Sodoma eta Gomorran. Ez zen gutxiagorako.


Gure Jaungoiko miserikordiaz beteak, ikusi zuelarik egiazko munduko sortzailea ez eta urrezko txekorrek adoratzentz zituztela, zazpi izurrite bidali zituen gauzak bere onera itzul zitezten; zazpi, aizue, ez gutxiago eta ez gehiago, eta arrenkuratu egingo zarete zeuen eguneroko arazoekin baina ez didazue ukatuko ez dela broma izango ohetik altza eta dena langostaz beterik aurkitzea: langostak ka-

fesnean, izara artean ere bai, etxeko trankotetan...

Gure Jaun zeruetan dagoenak, herri hautatua bere arimaren salbatzailearen alde egin ez eta mundutarkeriatan entretenitzen zela ikustean, zazpi behi lodi bidali zituen (*todalaletxepamadril*, jakina), baina gero, berehala, zazpi behi mehar, eta han ez zegoen fundamentuz jaterik.

Euritearena, sagarrarena, Babel Dorrearena edo Jesukristo bera zigorka aritu zitzaizela tenplua supermerkatuarekin nahasi zituzten saltzaile lotsagabeei kontuan hartu gabe.

Eta orain esaidazue, nafar kanpoeder alu zuriok, zer pekatu itsusi eta ezkutu, ezkutu batez ere, gordetzen du zeuen errai beltzak —ordu honetan besteak bezala hutsik egongo zen beste urtegi bat egin nahi izateaz aparte—, halako lehortea merezi izateko?



asteko pertsonaiak



Antonio Pascual
Iruñeko poliziburu ohia

■ Antonio Pascual Iruñeko poliziburu ohia epailearen aurrean deklaratu behar izan du berriro. Gogoratuko denez, Pascual inportatuta dago GALEn Nafarroako adarrari buruzko kasuan. Horregatik deklaratu zuen urriaren 17an Juan Manuel Fernandez Iruñeko instrukziozko lehen epaitegiko epailearen aurrean. Aste honetan, berriz, Gobernu Delegazioko iruzurrari buruzko azalpenak emateko deitu dute Pascual, orain lekuko gisa. Epaileak Iruñeko poliziburu zenean soldataz aparte jasotzen zuen dirutza (100.000-500.000 pezeta) zertan erabiltzen zuen argitzeko eskatu zion Pascuali. Honek «gastu sozialetarako» erabiltzen zutela adierazi zuen. Pascual Irungo komisario nagusia da gaur egun.



Javier Garro
Osasunako lehendakaria

■ Javier Garro Osasunako lehendakariak batzorde eragile baten esku utzi zituen bere eginbeharrak, astelehen gauean. Pedro Senosiain eta Juan Luis Irigarai futbol taldeko batzordeko kideek beteko dituzte Garroren eginkizun asko hemendik aurrera. Osasunako lehendakariak ohar ofizialean adierazi zuenez, bere lanbidea dela eta, ez du betarik lehendakari lanetan aritzeko. Garrok berak azaldu zuenez, eginkizun batzuk utzi baditu ere, ez du botere eragilerik delegatu eta lehendakaria izaten jarraitzen du. Javier Garro lazko ekainean hautatu zuten Osasunako lehendakari, lau urteko eperako, futbol taldea Bigarren Mailara jaitsi berria zela. Garrok ez du dimititzeko asmorik eta agintaldia amaitu arte karguan segituko duela argi utzi du.

ahaztu gabe!



JAIALDIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikasturtearen irekitze alternatiboa egingen du gaur egun osoan. Aurtengoa laugarren ekitaldia da eta antolatzaileek 14.000 lagun biltzea espero dute. Jai honen bidez, ikasturteari hasiera ematen dioten bitartean, ikasbidaia egin ahal izateko dirua biltzen ahalegintzen dira NUPeko ikasleak.

NUPeko aparkalekuan 4.000 metro karratuko karpa jarriko dute antolatzaileek. Goizeko bederatzietan irekiko dituzte ateak, biharamuneko goizeko zortziak arte. Ekitaldi ugari antolatu dituzte NUPeko ikasleek: mus txapelketa, herri kirolak, sokatira eta abar eta abar. Egun osoan, gainera, NUPeko rock taldeek alaituko dute giroa. Arratsaldeko ordu bi terdietan herri bazkaria egingen dute eta, ondoren, Rapsodia musika taldeak kontzertua eskainiko du. Gaueko bederatzitik eta hamaikak bitartean karpa itxita egonen da, tarte horretan garbitu ahal izateko. Hamaiketan Javier Gurrutxagak zuzentzen duen Orquesta Mondragon taldeak kontzertua eskainiko du. Azkenik, goizaldeko ordu bata terdiak aldera, Strenos izanen da giroa alaitzeko.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bitzilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrapo Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, obiturak.

Tafalla

Erakusketak, zinema eta antzerkia

Ekitaldi ugari antolatu ditu Tafallako Kultur Patronatuak hilabete honetan

Tafallako Kultur Patronatuak azaroan zehar eginen dituzten hainbat ekitaldi prestatu ditu. Erakusketak, zinema eta antzerkia izanen dira protagonista datozen asteetan. Ekitaldi guztien artean, jada zabalik dagoen eta datorren asteazkenera arte ikusgai izanen den *Celina Gorostizaboizaren argazki erakusketa* azpimarratzekoa da.

Erredakzioa / Iruñea

ZINEMARI dagokionez, eskaintza zabala antolatu du Tafallako Kultur Patronatuak eta osotara, sei filme izanen dira ikusgai gaur hasi eta abenduaren 16ra bitartean. Asteburu bakoitzean filme bat ikusteko aukera izanen dute bertako hurrek. Sarrera 100 pezetan salduko dute eta ordu-tegiari dagokionez, arratsaldeko 3.45etan hasiko dira filme guztiak.

Antzerkiari dagokionez, Tanttaka, Bederen 1 eta Teatro Geroa dira azaroan zehar Tafallan izanen diren konpainiak. Sarrerak 300 pezetan salduko dira. Kultur Patronatuak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du aipatu zikloa antolatu ahal izateko, *Arte eta kultura* programaren barruan sartzen baita.

Gaurko emanaldia Tanttaka taldeak eskainiko du eta *Todas culpables* izanen da taula gainean aurkeztuko duen obra. Tanttaka talde gipuzkoarraren ibilbidea 1983. urtean hasi zen

Ramon Agirre (eskuinekoa) aktore eta zuzendaria *El alquiler* antzerki laneko une batean.

I. UNZURRUNZAGA

eta orduz geroztik, hainbat estilotako muntaiak prestatu dituzte. *Agur Eire Agur...* obran drama naturalista landu zuten eta orduetik aurrera, dantza, musikala edo fartsa bera dira jorratu dituzten atal batzuk. Hain zuzen ere, konpainiak duen talde artistikoak lan bakoitzak dituen beharretara moldatzeko duen gaitasuna da Tanttaka taldearen ezaugarri nagusienetakoa bat. *Todas culpables* lanak 1992. urtean izen berarekin Martine Tartour idazleak argitaratu zuen liburua du oinarri.

Ramon Agirreraren 'El alquiler' taulara • Bederen 1 taldea gipuzkoarra da Tanttaka bezala,

eta hil honen 17an, datorren ostiralean, beraz, *El alquiler* Ramon Agirreraren obra antzeztuko du Tafallan. Komedia interesgarria da Bederen 1 taldeak Ramon Barea-ren zuzendaritzapean taularatu duena. Iaz, hain zuzen ere, Donostiako Hiria saria jaso zuen aipatu obrak. Bederen 1-eko taldekideek aipatu izan dutenez, Ramon Barea, bai telebista zuzendari, gidollari eta antzerki aktore eta zuzendari lanetan azken urteetan izan duen ibilbidea dela eta aukeratu zuten *El alquiler* obra zuzentzeko. Barea atsegin osoz hartu zuen esku artean lan berri hau, eta berehala jarri zuen proiektua martxan. Joan den urtean es-

treinatu zuen talde gipuzkoarrak lan hau.

Hil honen 24an, azkenik, Teatro Geroa konpainiak *Las amazonas del caballo* obra antzeztuko du Tafallan. Pepe Ortegak zuzentzen du drogaren munduan sartzen diren gazte batzuen istorioa kontatzen eta Chatono Contrerases idatzi duen antzerki lan hau.

Las amazonas del caballo obraren bidez, gogoeta kritikoa egin nahi izan du Geroa taldeak, «ikusleak toxikomanoen buruz izaten ohi duen irudia aldarazteko». Toxikomanoen mundua oinarritzat hartuz, hainbat istorio kontatzen ditu antzeztan honenek. X

Lesaka

Xalto saria martxan

■ Gaur jokatuko dute lehen kanporaketa

Jon Abril / Lesaka

GAURTIK aitzina eta hiru aste bukaeratan zehar, Nafarroako bertsolari gazteentzako Xalto saria ospatu da. Zortziko Ttikia Nafarroako bertsolari gazteen elkarteak antolatu eta Nafarroa Ateneoak nahiz Goizuetako Udalak laguntzen duten ekitaldiak, hirugarren urtea beteko du aurretik. Lehendabizikoa kanporaketa Lesakako Arranon jokatuko da gaur iluntzeko zortzietatik aitzinera. Bertan, bederatziko bertsolari ariko dira. Euren lana, zortziko handian bi bertso, azken puntua emanda bertso bat eta gaia emanik bertze bat egitea izanen da. Bederatziko haueetatik sei Arbizuko finalaurrera pasatuko dira eta lazko finalean egon ziren gainerako bertsolariekin lehiatuko dira. Lazko finalean aritutako Estitxu

Aroza eta Amaia Teiletxea ez dira Xalto sarian egongo. Lehenak, aurreko bi urteetan txapela irabazi izanak galarazten diolako eta bigarrenak, bere burua aurkeztu ez duelako. Hauen orde, Nerea Bruño eta Oskar Estanga ariko dira kantuan. Gainerakoak, Estitxu Fernandez, Xabier Legarreta, Iñigo Olaetxea eta Xabier Silveira izango dira, zuzen-zuzenean Arbizuko finalurtekorako joango direnak.

Datorren ortziralean, beraz, gaur Lesakan sailkatuko diren seiak eta aurretik sailkatuak dauden seiak lehiatuko dira finalerako txartelak lortzeko asmoz. Norgehiagoka Arbizuko udaletxean izango da gaueko zortzietan. Finala, Xalto bertsolaria izandakoaren herrian izango da, Goizuetan, azaroaren 25ean, arratsaldeko seietan. X

Biana

Erentzun ikastolaren jaia

■ Hainbat ospakizun prestatu dituzte

Erredakzioa / Iruñea

BIANAKO Erentzun ikastolak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako bere jaia ospatzeko asmoz. Erentzun ikastolako guraso, irakasle eta ikasleek prestatu duten egitaraua gaur bertan hasiko da, arratsaldeko zortzietan. Ordu horretan, hain zuzen ere, ikastolaren historia azaltzeko asmoz diapositibak eta bideo bat eskainiko dituzte ikastolaren egoitzan bertan.

Biharkoa egitarau oparoa izanen da eta zalantzarik gabe kirola izanen da protagonista nagusia. Goizeko hamarretan hasiko dira ekitaldiak eta ordu horretan kros txapelketan parte hartzeko aukera izanen dute herriko hurrek. Goizean ere, mendiko bizikletaz lasterketa izanen da.

Goizeko ekitaldien barruan pailazoak ikusteko aukera izanen dute Bianatarrek eta helduenek arratsalde partean, berriaz, mus txapelketa jokatuko dute. Biharkoa Erentzun ikastolako antolatu duen lehenengo mus txapelketa izanen da, baina ez azkena, ziurrenik.

Igandean, Erentzun ikastolako txikienek Lizarrako ikastolako ikasleen aurka jokatuko dute futbito partidua, goizeko hamar terdietan eta orduete geroago, Erentzun ikastolako eskubalo txapelketa jokatuko dute. Ondoren, bazkaria egingen dute Bianako herritarrek.

Astelehenean amaituko dira ospakizunak. Amaterako ekitaldia, hain zuzen ere, Fefix Carriñanosek Kultur Etxean Bianako beste garai bateko haurren bizimoduari buruz emanen duen hitzaldia izanen da. X

Izan, badira bigarren multzoko putzu sakon, ilun eta tristetik beren kabuz ateratzen saiatu diren koitaduak. Baten batek bere buruari idatzi dio. Besteren batek kaleko norbait ordaindu dio eskutitzak bidal diezazkion. Badaude, halaber, elkarrizketa bidali dioten bigarren multzoko kide gixarajoak. Pribilegiatuen zerrendan agertzeko alferrikako saialdiak izan dira horiek guztiak; izan ere, intsumiso preso mundu endogamikoan azkenean gutzia jakiten da. Beno, gutzia ez, orain arte inor ez baita jabetu nik jasotzen ditudan lagunen eskutitzak ez direla. Nik jasotzen ditudan harpidetza ordaintzeko behin eta berriz eskatzen didaten EGUNKARIA, Argia, Hika eta El País argitalpenen eskutitzak dira, baina, arren, otoi eta faborez, ez zezalozue inori esan.



Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Zerrenda

Arratsaldero, siestaren gibelatik, lau terdiak aldera, beheko solairuko funtzionarioak papertxo bat paratzen du telebista gelako *peceran* —kartzelarien kristal eta metalezko zaindaritza postuan—. Intsumituak urduritasunaren ondorioz erraiak nahasturik pilatzen gara horren aitzinean. Paper zati horrek, eta horretan zirri-borro konprenigaitzez idatzirik izen zerrendak, garrantzi izugarria daukate gure giltzapeko bizitzan. Hor ageri diren intsumisoak hurrengo 24 orduetan zehar zoriontsu izanen dira. Gainontzekoak, aldiz, triste eta buru-makur biziko dira biharamunean, ordu berean, haien izena zerrenda berrian bilatu arte. Hor ageri direnek eskutitza jasoko dute. Gainontzekoek, aldiz, ez.

Eskutitza jasotzea, egia esanda, gutxienekoa da. Benetan garrantzitsua dena zera da, gainontzeko intsumituek zure izena zerrendan ikustea; zerrenda horrek, denbora joan ahala, bi giza talde ezberdin sortu baititu gure kolektiboan: egunero inoiz heltzen ez den eskutitzaren zain, daudenena —gauzak horrela, espexitik kanpo zeharo ahantzirik daudenena— batetik, eta egunero eskutitza jasotzen dugun, eta beraz, kartzelatik landara hagitik maitatuak garenona, bestetik.

Inken erret
bidea

Hego Amerika inken bidean zehar

Inken inperioak eraikitako harbidetik zeharkatu ditu Andeak Xabier Goñi mendigoizale nafarrak

Xabier Goñi nafarrak Peru osoa zeharkatu du antzinako inken inperioak Andeetan zehar eraiki zuen harbidetik. XVI. mendean geroztik ez zuen inork bide hori zeharkatu eta bertako herritarren artean ere, gutxiak dute haren berri. Goñik ia hiru hilabete eman ditu Hego Amerikan.

Edurne Elizondo / Iruñea

ASKOK ametsetan baino ikusten ez dituzten lekuetan egon da Xabier Goñi historia irakasle eta mendigoizale nafarra. Europako herriak ongi ezagutzen ditu, baita Alaskako eguraldi hotzaren gogortasuna edo Saharako basamortuko bero jasangaitza. Indonesia, Tailandia, Zelanda Berria eta beste hainbat toki izan dira azken urtetan Xabier Goñiren bidaien lekuko. Horieta azkenak Hego Amerikara eramandu nafarra, joan berri zaigun uda honetan. «Urteak dira Hego Amerikara joateko gogoia piztu zitzaidala, baina orain arte ez dut bertara joateko aitzakia aurkitu». Bere eskuetara ezerezetik allegatutako liburu batek eman zion bilatzen zuen aitzakia eta inken inperioaren aztarnen bila abiatu zen ekainean Xabier Goñi Hego Amerikarantz.

Iruñetik Eider eta Itziar Insausti anai-arreba gazteekin atara zen Xabier Goñi eta Boliviako Tiaguanaco herria izan zen euren lehen geldialdia. Muga pasatu eta Peru osoa zeharkatu ondoren, Ekuadorren bukatu zen hiru nafarren bidaia. Bertan, inken harbidetik Sumendien Bailara zeharkatu eta Ekuadorko gailurrik garaiena eta munduko sumendirik altuena den Chimborazora igo ziren. Bi egunetan igo eta jaitsi ziren eta hiru orduko autobus bidaia egin eta gero, Quito bukatu zen nafarren abentura. Ekainaren erdialdean abiatu ziren Hego Amerikarantz eta bertan egon ziren irailaren erdialdean Nafarroara itzuli ziren arte. Denbora tarte horretan, 3.000 bat kilometro ibili ziren Andeetan zehar gora eta behera, inken erret bidetik barna.

Xabier Goñiri erraz igartzen zaio historia ikasketak afizioz egin zituela. Izan ere, munduan zehar egin dituen bidaia guztietan antropologia eta natura edo mendizaletasuna nahastu da. Hego Amerikara eramandu duen azken honen helburu



Bere eskuetara ezerezetik allegatutako liburu batek eman zion Xabier Goñiri bilatzen zuen aitzakia eta inken inperioaren aztarnen bila abiatu zen ekainean Hego Amerikarantz. XABIER GOÑI

nagusia, hain zuzen, inken erret bidea berreskuratzea izan da, XVI. mendean geroztik ez balizuen inork zapaldu. Lagun duen antropologia irakasle baten bi-

tartez Pedro Ciza de Leonen Indietako kroniken berri izan zuen eta bertan aurkitu zuen bilatzen ari zen Hego Amerikara bidaia-tzeko aitzakia. «Kronika horien eta ondoren inken inperioari buruz irakurri nituen beste hainbat libururen bidez izan nuen bidearen berri eta berehala liluratu ninduen».

Xabier Goñik azaldu duenez, «erromatarrek egin zituzten harbidetik baina ikusgarriagoa da

inkek Andeetan zehar egin zutena». Bide honen xede nagusia, bestalde, «inkena inperio militarra izan zela kontuan hartuz», komunikazioa bermatzea eta bertatik komertzioa egitea izan zen. «Hainbat produktu garratzen zituzten eta tropak ere bertatik igarotzen ziren». Xabier Goñik, halaber, bere ustez jakin beharreko datua ezagutarazi nahi izan digu: «Inken erret bidea deitzen bada ere, bide horretako

16.000 kilometro baino gehiago aurretiko Huari inperioak eginak direla erran behar da». Huari inperioa gure garaiko 1000 urte inguruan bizi izan zen, inkena, berriz, 1000 eta 1500 bitartean. Inkek Huari inperioak egin eta zutik ziren bide zatiak bere egin zituzten. «Espainiarrak Amerikara iritsi zirenean bertan zegoen guztia deuseztu bazuten, inkek gauza bera egin zuten Huari inperioarekin. Inperio indartsu eta

«Kronika horien eta ondoren inken inperioari buruz irakurri nituen beste hainbat libururen bidez izan nuen bidearen berri eta berehala liluratu ninduen»

Inken erret
bidea

«Espainiarrak Amerikara iritsi zirenean bertan zegoen guztia deuseztu bazuten, inkek gauza bera egin zuten Huari inperioarekin. Inkek ez zuten haren arrastorik ere utzi»

garrantzitsua izan zen, baina inkek ez zuten haren arrastorik ere utzi. Inken boterea, beraz, laster zabaldu zen eta Cuzco hirian soterrria badu ere, berehala hedatu zen inguruko herrialdeetara.

Inken harbideari buruzko informaziorik ez • Hego Amerikara abiatu aurretik, hilabeteak eman zituen Xabier Goñik inken erret bideari buruz ahalik eta informazio gehien biltzeko asmoz. Ciza de Leonen kronikak behin eta berriro irakurri zituen eta gaztelera zaharrean idatzita zeuden toponimoak itzuli eta gero, nolabaiteko plano osatzea lortu zuen. Madrilen Peruk duen enbaxadan ere egon zen nafarra argibide gehiagoren bila, baina ez zuen ezer aurkitu.


Izan ere, Xabier Goñik harrituta aipatu digunez, «Hego Amerikan bertan, inor gutxi zekien inken bidea bertan zegoenik». Eskualde altuetan bizi dira egun indigena talderik bizienak Peru osoan zehar eta bertako hainbat herri elkarlotzen dituen inkek egindako bideak zutik dirau leku askotan. Bertakoek bide hori erabiltzen dute, baina ez dakite nork edo noiz eginga den. Hori dela eta, Xabier Goñi eta bere ki-deek Andeetan zehar inken bidetik abiatzeko asmoa azaltzen zirenean, «aho zabalik gelditzen ziren bertako biztanleak».

«Pozik itzuli banaiz ere, bidaia gogorra izan da» aitortu du Xabier Goñik, «fisikoki zein psikologikoki». Nafarrek garraibide publikoak eta zaldiak erabili dituzte Hego Amerikan bidaiatu ahal izateko, baina 400 bat kilometro oinez egin dituzte, «bizkarrean 20 kiloko motxila genuela». Bestalde, «bertako indigenen bizimodu oso gogorra da eta denetik ikusi dugu. Lauzpabost urteko haur anitz dago neumoniak jota eta gehienek bitaminak eta mineralak behar dituzte. Izan ere, 4.000 metrora patatak baino ez dira landatzen eta hori jan behar dute beti».

Bertakoen harrera, hala ere, beroa izan zen Goñik gogoratu duenez. Hainbat probintziatako hiriburuetan izan ziren nafarrek inken bideari buruzko datuen bila, baina erran bezala, ezer gutxi lortu zuten. Euren asmoak, hala ere, herritarren jakinmina piztu zuen eta hainbat telebista eta irrati agertu ziren euren bidalaren nondik norakoak azaltzeko. «Behin diskurtso bat ere eman behar izan nuen», azaldu du Goñik. Bertako biztanleen artean, hala ere, pozik egon zen Goñi, «kultura ezberdinak ezagutzea baita nire xede nagusia».

Beste hainbat lekutan, aldiz, Espainiako pasaportea izatea

gatik bertakoen begirada txarra jasan behar izan zuten. «Espainiarrekiko arrangura bizirik dago oraindik». Goñik, hain zuzen, Cuzco hiriaren adibidea azaldu digu. Azaldu duenez, 1992. urtean Sevillako erakusketa zabaldu zutenean, bertako alkateak hiriaren izena, armarrria eta bandera aldatu zituen, espainiarren sinboloak baztertu eta inken inperioarenak berreskuratu. «Qosqo da egungo izen ofiziala.



Xabier Goñi.
JOXE LACALLE

«Hango indigenen bizimodu oso gogorra da eta denetik ikusi dugu. Lauzpabost urteko haur anitz dago neumoniak jota eta gehienek bitaminak eta mineralak behar dituzte»

Banderan inken ortzadarra dago eta armarrrian eguzkia».

Peru eta Ekuadorren arteko tirabirak • Urte honen hasieran Peru eta Ekuadorren artean izandako tirabiren ondorioak ere jasan behar izan zituzten nafarrek Peru zeharkatu eta muga gurutzatu bezain pronto. Muga, hain zuzen, minaz josita zegoen, guztiz debekatuta baitute bertakoek zeharkatzea. «Erdian, ino-

rena ez den hiru kilometroko lur eremua dago».

Xabier Goñik azaldu duenez, «herri inperialista da Peru, are gehiago Fujimori lehendakari denetik. Kolonbiaraino hedatu nahi du bere boterea Fujimorik, garai batean eskualde hori guztia inken inperioa zela aitzakiatzat jarriz. Hauek ez dira orduko garaiak, ordea, eta Ekuador herri independentea da egun. Peruko lehendakariari bost axola».



Quechuar herriko biztanleak dira argazkian ageri direnak.

XABIER GOÑI

«Barrow herrixka, ahaztezina»

HEGO AMERIKARA joan den udan egin duena ez da Xabier Goñiren lehen bidaia. Munduko hamaika txokotan ibilia da eta abenturaz gain, kultura ezberdinak ezagutzea da batetik bestera bultzatu duena. «Munduan dauden ekosistema handi ezberdinak ezagutu nahi ditut, hori da nire helburua», aipatu du Xabier Goñik. Orain arte, Europa, Zeelanda Berria, Saharako basamortua, Indonesia edo Thailandia dira nafarrek bisitatu dituen leku batzuk.

Gehien txunditu edo harritu duena, hala ere, Alaskan dagoen eta 2.000 biztanle inguru

dituen Barrow herrixka izan da. «Hori da Amerikan Ipar Polotik gertuen dagoena. Bertan ez dago ezer. Urtean zehar hamaika hilabetez izoztuta dago dena. Hala ere, liluratu egin ninduen». Bertan eskimalekin bizi izan zen hainbat hilabetetan zehar Xabier Goñi eta «gureaz guztiz ezberdina den mundua dagoela» konturatu zen: «Oso gutxiarekin bizi dira, baina hala ere ongi moldatzen dira». Barrow herrixkan zero azpitik 60 graduko temperatura izaten dute ia urte osoan zehar. «Uztaila da horma desagertzen den hilabete bakarra eta orduan 4 graduko da temperatura». Urtean zehar bisitatu dituen lekuen artean batera itzultzeko aukera izatekotan, ziurrenik,

bertara itzuliko litzateke Xabier Goñi, «oroitzapen ederrak baititut. Han nengoela, adibidez, itsasoa hormatu zitzaigun». Bertan ezagutu zituen askorekin, halaber, harremanetan jarraitzen du Xabier Goñik eta noizean behin elkarri igortzen dioten gutunen bidez badute elkarren berri.

Ipar polotik hain gertu oso bizi-baldintza gogorak dituzten arren, bertako biztanleen berotasunak harritu egin zuen gehien Xabier Goñi: «Normalean, klima gero eta gogorragoa denean, hotzagoa, hotzagoa da baita bertako jendearen izaera. Barrow herrixkan, ordea, alderantziz gertatzen da. Bizi-baldintzak inon baino gogorragoak dira, baina

beste leku batzuetan baino harrera beroagoa egin zidaten bertan. Beraien etxeetan ere bizi izan nintzen. Beraiekin lo egin eta jan nuen», nabarmendu du Xabier Goñi nafarrek.

Barrow herrixkako bizimoduaren adierazle den pasarte baten berri eman digu mendizale eta bidaiari nafarrek: «Hormarekin batera, itsasoa izoztu zenean, hartz zuriak etorri ziren. Kanpindenda batean egiten nuen lo, baina herrixkako biztanleak berehala etorri ziren nire bila. Hartz zuriek jan egingo nindutela erran zidaten bertan geldituz gero. Erran zidatenez, etxeko ate eta leihoak zurez estali eta eskopeta eskuetan dutela ematen dituzte eurak orduak barruan».

Hego Amerikara uda honetan egin duen bidaia Xabier Goñiren lehena izan ez bada, are gutxiago izanen da azkena. Oraindik ezer prestatu ez badu ere, hasi da dagoeneko idela berri baten atzetik. «Hego Amerikara joateko irrikitan egon naizen bezala, bada egin ditudan bidaietan oraindik bete ez dudana beste hutsune bat aipatu du bidaiariak. Hutsune hori betetzeko gogo eta grinak, ziurrenik, Afrikara eramango du Xabier Goñi bere hurrengo bidaietan. «Afrikan lehen ere egon naiz, baina oraingoa Afrika beltza ezagutu nahi dut, erabat ezezaguna baita niretzat». Goñik, zehazki, Livingston ikerlariaren bidea egiteko asmoa du. #

Xanti Begiristain

Aldaia etxera / Euskal Herria askatu

■ Gatazka hau ez da atzo goizekoa. Denok dakigu gutxi gora-behera noiz hasi zen. Badakit afera hau delikatu eta konplexua dela. Batez ere, nik oso garbi daukat istilu hau ez dela santu batzuen eta lau ero bortxakeriazaleen arteko kontua, hainbat eta hainbat komunikabide maltzurretan egunero entzuten den bezala; niri behintzat ez didate irentsiaraziko horrelako siplekeria. Ez, neronek badaikit arazo hau askoz luzego, serioago eta sakonagoa dela; arrazoitu eta hausnartu nahi duen edozein buru adimentsu arruntek ikus eta soma dezake hori. Baina, hala eta guztiz ere, egunero entzuten dira aldrebesko bertsio eta desinformazioak.

Esan bezala, egoera hoen zioa ez da gaurkoa, ez eta txorakeria bat ere; beraz, hortik abiatuta (eta alderantziz pentsatzen duenak demostra dezala bere tesia funtsezko argudioen bidez eta ez arinkerien bidez) iritsi nahi dut besterik gabe gaur egun horren maiz gertatzen diren agerraldi-kontragerraldi, manifestazio-kontramantestazio eta kontzentrazio-kontrakontzentrazioen gaira.

Hasteko esan beharra dut Euskal Herri honetan gutxienez bi indarkeria mota daudela, Estatuarena eta ETA erakunde armatuarena. Hau ezin dugu ahaztu, bi dira, hortaz. Gehiago esango dut oraindik, nire ustez euskal erakunde armatua sortu zen zoritxarrez aspaldian, Euskal Herriko eskubide legitimo batzuk errebindikatzeko eta defenditzeko. Zetgatik? Ba, kasu honetan, Espainia eta Frantziako estatuek, era normalizatu eta demokratiko batez ez dizkiotzelako eman izan nahi gure herri santu honi aipaturiko eskubide horiek, eta horretan ari gara. Badakit jende asko ez datorrela bat jokabide armatuarekin, baina herri honetan errealitate handi eta mingotsa da. Ukatzan zaizkigun oinarritzko eskubide horien ondorioetariko bat da noizean behin bahiketa politikoak gertatzea, eta egoera horretan gara azken hilabete hauetan ere. Garbi dago azken hogeita hamabost urteotan Estatuak ezin izan dutela suntsitu ETAre indarra nahiz eta oso jokamolde antidemokratikoak erabili (GAL, izkutuko fondoak, CESID, tratu txarrak, torturak, preso sakabanaketak, errefuxiatuak, deportatuak, atzerriatuak, konfinatuak, isolatuak, eta abar, eta abar) eta bestetik ere, nahiko nabarmena da ETA erakundeak ezin izan duela lortu bere helburua. Noiz bukatuko den sufrimendu hau guztia? Ba, segururik asko, enfrentaturik dauden alde artean



benetako negoziatio gertatzen denean. Negotiazio horren ondorioz eskuratu beharko dira herri honentzat egiazko hitzarmen eta itunak baina zuzentasun, demokrazia eta askatasunean oinarrituak. Zeinen zaila, zeinen erraza, ez da hala?

Nik uste dut guztiz zilegia dela Aldaiaren etxeratzea eskatzea. Beti esan izan da pertsona baten biziak mugagabeko balioa duela. Baina, orduan zergatik enfrentamentu eta kontramantestaldia horiek guztiak? Ba, nik uste dut oso erraza dela ulertzen nahi baldin bada. Esan dudana bezala Aldaia jaunaren bizia eta bere osotasuna errespetatzea eskatzea guztizko zilegitasuna baldin bada, ez dauka legitimitate gutxiagorik Euskal Herria askatu eskatzea. Gogoratu azken honetan eskatzen ari dela jende askoren gutxieneko giza eskubideen defentsa, ez torturatzea, tratu txarrik ez ematea, preso politikoak ez sakabanatzea,

hainbat pertsonaren senideak gehiago ez zigortzea legez kanpoko bidaia, gastu eta tratu desegokiak, presoak ez isolatzea, kondenaren hiru herenak bete dituztenak askatzea, itzulerarik gabeko gaixoak ateratzea, eta abar, eta abar. Zertarako jarraitu? Ez ahaztu, Aldaia jaunaren kasuan bezala, beste aldean ere jaun eta andre asko dagoela espetxe eta komisaldegietatik ateratzen dena guztiz errugabe, hau da, kargurik gabe baina kristorenak eta bost jasan ondoren. Baina badago arazo garrantzitsu bat, hots, Aldaia jaunari ematen zaio tratamendu mimatua Sistemaren barruan dauden komunikabide guztietan, eta Euskal Herria askatuaren aldeko berriz tratamendu terribertsatua, txarra, eskasa, isiltasuna egiten zaio, desinformatu, e.a. Egundoko desoreka. Hori ez da zuzena. Ardanza, Atutxa, Gonzalez eta Belloch, emaiouze Ezker Abertzaleari beste tratamendu zuzenago bat komunikabide guztietan eta ikusiko duzue nola jokabideak samurtuko diren. Proba ezazue gutxiago satamizatzen adibidez. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Salbatore Mitxelena gogoan

■ Aieru franko badituzte ea azkeneko urtetan gure literaturan jazo diren agerraldiak oro ezagunak direnentz, ala zenbait izkiriatale erraldoik arreta osoa bereganatuta umilagoak ditazkenak lits ezdeuska balira osoz ahazturik dauden. Horrelako bat Zarauzko Inurritza auzoko Etxebeltz izeneko baserri gorrixkan sortu zitzaiguna genduke. Salbatore Mitxelena Lazkano 1919. urteko urtarrilak hamazortzi egun zituenean jaio zen. Hamaika urte zituela, jinkoaren deia baitaturik edo sortetxeko pentze eta baratzak lantegi eta giza abarasez betetze neurrigabekoak aztoraturik, Gernikako Foruara abiatu zen frantxikotar. 1936.ean Erriberri buruz hurbildu zen filosofia ikasketak burutu asmoz, baina bertan gerrak harpatu zuela, Iruñeratu behar izan zuen. Hango lasaitasunak eragin egonezak gatazkaren lehendabiziko lerrora joateko eskaera eginarazi zion, eta kabo furrier gisaz aritu zen Guadalajara aldean. Guda ostean, Arantzazura joatea egokitu zitzaion teologiari ekiteko. Apezgorako ildo osoa ibilia izan zuenean, Donostian bertan kokatu zuten, handik, Gipuzkoa nahiz Nafarroan misiolari lanetan iharduteko. Misionista ugari, ezin joriagoak burutu zituen. Hauetako batean, 1954.ean Eibarren egin batean hain zuzen ere, Franco garaiko euskal langileen giza arazoak salatu zituelako jasotakoak Amerikara joateko eskaera egitera bultzatu bide zuen.

Euskaldunen eta euskararen batasuna behin eta berriz aldarrikatu zuen euskaltzain urgazlea zen zarautzarrak: «Sei dialektu ta hogeitik gora subdialektu ba omen dira euskararen, gure aberastasuna! 350txo irakurle besterik ez omen gera, baña...baña baitare ordea beste ainbeste maixu, nolako maixu! nolako jauntxo ta jabe! 350txo oietako bakoitza gaituzu norberexa euskera berri-berri bat asmatzeko lain, beste inork ez ulertzeko alakoa; gure aberastasuna!». Bestaldetik ere, etzen idazle elkorra izan. Herriberri ikasle zelarik, *Aberriak min dit* izenburuko olerki bilduma ondu zuen, baina garaiko egoera politikoak eragotzi zuen bere argitalpena. Guziarekin ere, bertsoaren bat Jokin Zaitegi lagundikoak sortu eta zuzenduriko *Euzko gogoan* aldizkarian ageri zen Guatemalan. *Arraun ta amets* poemategia 1955. urtean agertarazi zuen Zarautzen. Bere lehendabiziko lan argitaratua *Arantzazu euskal sinismenaren poema* idazki erraldoia dugu, Arantzazun 1949.ean ageri zena. Dena den, eskuizkribuaren bi zati besterik ez ziren karrikatu gaia zela eta. Hirugarrena, *Bizi nai* izenburuaren azpian *Euzko gogoan* ere ageri zen. 1952.ean *Hogei kanta Arantzazuko* kantutegia kaleratu zuen. Aldez aurretik, eta frantxikotarren probintziala zen Lete aitak iradokita, Arantzazuko santutegiaren historia bat izkiriatu zuen, 1951.ean Arantzazun ere elki zena. *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* idazkia hain zuzen ere. Arantzazuko herri kantak eta erromantzeak jasotzen zituen *Aboz abo edo Arantzazuko kanta zaharrak* izenburuko ere ondu zuen. Antzerki arloan, Francoren garaiko politika errepre-sioa isladatzen zuen *Erri bat guruzbidean* edo *Confixus* izenburuko lana sortu zuen. Bere idazlan guziak Gandarias eta Iturriak paratu bi liburutan baditugu honezkero, 1977. eta 1984.ean kaleratuak izan zirenak.

Nolanahi ere den, eta inolako dudamudarik gabe, bere lanik interesgarriena *Unamuno ta abendats: bilbotar filosofuaren eta euskal animaren jokerei antzemate batzuk* izenekoak genduke. Inurritza izengoitiaren azpian 1958.ean eta Baionan ageri zena, hegoaldean debekaturik baitzegoen. Txillardegiren baten ustez euskaraz egin lehendabiziko saiakera dugu eta euskaldun orok irakurri beharko genukeena. Bertan, Unamunoren euskaltzaleatasuna agerian uztea zuen asmo ez iluna: «Alajaina, Unamuno ezala euskaldun, akatsik baditula ta! Ala sinistatuzi nahi didazu beraz? Beira nire aldetik, arrazoi analoji berez, zer gomutarazi ta aitortarazi beharko dizudan: ez batere gutxiago, arranea: kontu hortan Euskalherria bera re ezala euskaldun! ■



Nafarroako taldekako txapelketako hirugarren jardunaldiko partida, 1995eko urriaren 21ean jokatu.

Jesus de la Villa (Iruñeko Oberena'A'), 2.480 ELOkoa - Manolo Redin (Iruñeko Casco Viejo) 2.205 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Ae3, Ag7; 7.f3, o-o; 8.Dd2,Zc6; 9.o-o,d5.

Orain arteko ohikoa izan bada ere, beltzek erdigunea apurtzera jo dute une honetan.

10.De1,e6; 11.h4.

Irtenaldi honetan, eraso hau klasiko da.

11....,Dc7; 12.h5,Zd4; 13.Ad4,a5.

Ikusi koadroa. Erdiko peoi beltz horiek babesik gabe daude. Txuriek badaukate erditik erasotzerik, beltzen pieza astunen kokapena kili-koloa dela eta.

14.Zb5,Db8; 15.Ac5.


Egokiena 'Gd8' bide da. Baina 'Db4' eta 'Ad6' zinez gaiztoak datoz.

15....,Ae6.

Jokoa emateko da. Baina galtzea onestea ere bada.

16.g6,f-g6; 17.Af8,Df8; 18.Zc7,Ge8; 19.d5.

Erabateko hondamendiaren aurrean, beltzek amore eman zuten.



Kasu, Pettiri dator gero!

Pedrori lotu izan zaio gehientsuenetan gosearen kontzeptua eta pertsonifikazioa euskal tradizioan

Beztu gabeko lurra nagusi den honetan, idortea da aho mihitan hitz aspertu guztietan: bazterrak lehor, ur eskasia, Eugiko urtegian ur gutxi, Esakoan are gutxiago, Artetako iturburua agortu hurren, eta adinekoen begirada, bitartean, 1947-48 urteetan pausatua, garai hartakoa omen delakoz mende honetako sikaterik gorriena, hots, iturri gehientsuenak agorraziti zituena.

Kike Diez de Ultzurrun / Iruñea

DUELA 50 urte gertatu zen agorraldi luzeak gari pikorrik gabe, ogirik gabe, utzi zituen gure herrialdeko galsoroak eta etxeak, gisa horretan areagotuz gerra ondoko bizimolde latza. Gaur egun, jakina, ez da inor ere goseak hartuta egonen hezetasunik gabeko lur zuri lehor horietan garia burutzen ez bada. Eta ez da galbururik ikusteko aukera izanen langarrarik gabeko zeru saipaiak bere horretan iraunez gero, behintzat. Nekez adituko du inork ordea, arestian aipatutako urte haletan aitaxi zenaren ezpainetatik Zipriano Gaskue Orradre xahar etulaindarrak entzundakoa: «Pettiri heldu duk». Bertzera erranik, gosea heldu da.

Horra hor, beraz, gosearen pertsonifikazioa euskaraz: Pettiri edo Pettirisantz. Edo, han hemenka agertzen diren aldaerak, Bettiri edo Bettirisantz. Auskalo zergatik lotu zaion Pedrori gosearen kontzeptua, baina, adibideak aunitz dira mugaz bertzaldean eta mugaz honaindiko Nafarroan. Konparazio batera, honatx Azkuek dakartzan batzuk: «Horrek oraino Pettiri Sans ikusiko dik, bai». Alfer eta mozkorregatik erraten omen da. Goseak dagoela adierazteko, ondoko hau erabili da, «Pettiri Santsakin bizi da hori»; eta gosea urrunarazi dutela errateko, bertze hau, «Pettiri Santz opil-kalduz lasterkatu dute», hau da, gailetak janez, Azkuek berak idatzi zuenez.

'Naparroako euskal esaera zaharrak'

• Aita Damaso Intzakoak, bere aldetik, zenbait esanera bildu zituen *Naparroako euskal esaera zarrak* liburuan. Esteribarkoa da ondoko hau, «gure etxean Pettiri sartu da», garia eta irina akitu diren seinale; Erroibarreko Gerendiañen edo Gerifien, berriz, hartua da «Pettiri hurbil dugu» dioena, hemen ere garia bukatzen ari zelarik erraten zutena. Odietaiko Ziaurritzen, aldiz, kolore eta guzti agertzen zaigu gosea: «Pettiri zango gorri kutxa handi horretan dago», haurrak izuarazteko edo txilarazteko erabiltzen zutena.

Iruñerrian ere Pettiri izenaz baliatzen ziren ikara sortzeko, behintzat. Izan ere, Javier Irigaray imaz jaunari honela abestu

zion duela hogeiren bat urte Esteribarko hego muturrean dagoen Irozko gizon batek: «Pettirigorri zaldian, lau atzetan zuriak, Elkanoko zelaletan botatzen zuen iaunzia. Pettirigorri zaldian ezpata zuela Gelian(sic), banderata paratu diote Amukaingo herrian». Iroztar hura erdalduna zen, baina oraindik gogoan zeukan herri berean sortua zen aita euskaldunari ikasitako zenbait esaldi. Ez dakigu kopia horretan azaltzen den Pettirigorri gosearekin zer ikusia ote duen, baina sinbologiaren baterik agertzen da, zorigaitzaren mezulari edo ekarie. Eta ba ote zen gosea baino gauza zorigaitzokoagorik?

Dena den, Lapurdin ere agertzen da zaldiazen irudia gosearen pertsonifikazioaren ondoan. Azkueri kantatutako abesti honetan, hain zuzen ere:

- I. Bettiri Santsen zaldia bidean joalle handia, lekaletatzat duelarik miseria egun guzietan gure etxerat ehakidala abia, maiz harat baduk legea, badakik ongi bidea joan nahi dautak undar begia.
- II. Irakurtu ditut legeak gehienak egi egiak, miseriaren berriak ta pobrezian sartuak dira herri huntako jendeak naiz eta ardura eriak, bisitatuz goseak, gaxi miserableak.
- III. Joan den negu beltzean zernahi egin dut etxean, ahi txorta zonbeit eiten ginuen pertzean, aza hutsak eitzean, ontzekoa martxantean


Betiri dantzan sukaldean.

Dantzarako horren zaletasun handia duen herrian, gosea dantzari, jakina. Eta dantzari izan ezezik, baita danbolin jole ere edo tanburina, non eta Iruñerrian berean. Irakur bertzenaz, ironiaren berri aski ongi zekien koplari ezezagun batek egindako kantua edo bertso sorta hau:

- I. Aurren Iruñerrian Betiri Sants tanburin, soinu soinu duen guztietan berdin, bazkaria txar eta afaia arin, Betiri bizi deno ala beharko egin.
- II. Merkaturik etxera deus ez ekarrita, hauxe da kontatzeko kontua pollita, haurra nigarrez eta Betiri jauzika, aisa dantzaren da gerlirabaz eta.
- III. Betiri tanburina gizon abila da,

Espania harturik jin da Frantziara, Frantsesari eman dio frontieratik gerla, orai mundu guziaren nausi sartzera doa.

Gosete handia beraz, Iruñerrian izan zena. Nik dakita, ordea, noiz eta zer zela medio, edota berriz ere harrapatuko ote gaituen. Behar bada, zaldi lepazuri baten gainean etor liteke, edo arrot bestazalea izanik, ttuntuneroz mozorrotuta, edo, bertzenaz, ustekabean sukaldeko labetik beretik aterako zaigu. Ezin jakin. Bizkitartean, zelatan ariko zaizkigu Pettiri edo Petri, Santz edo Petrisan (letra bat gora behera, ez ote dira horiek politika gizonak?), euri ezean, ez baita hazituko gari-hazirik Iruñerrian. Ia hortaz, lurra edo gorputza txirriatzeko paradarik daukagun. Bitartean, «kasu lehorteari, Pettiri bazetorrek eta». #



*
◆ Jose Luis Gorostidi ◆ Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria

«Geure proiektuari eutsi diogu»


Paz de Ziganda Atarrabiako ikastolak eraikin berria inauguratu zuen joan den larunbatean. Lehen harria 1994. urteko irailean jarri zuten eta egun, jada, bertan dira haur eta irakasleak. Paz de Ziganda ikastolaren ibilbidea orain dela 25 urte hasi zen eta urtetik urtera «sendotuz joan da», Jose Luis Gorostidiren irudikoz.

Edurne Elizondo / Atarrabia

HOGETA BOST urtetan zehar hamaika egoitza ezberdin ezagutu ditu Paz de Ziganda ikastolak. Larunbatean, azkeneko, eraikin berria inauguratu ahal izan zuten bertako haur, irakasle eta gurasoek. Berrogei haur ingururekin abiatu zen Paz de Ziganda eta egun, 800 ikasle baino gehiago ditu. Jose Luis Gorostidi ikastolako zuzendariarekin mintzatu gara ikastola berriaren eta azken urteotako ibilbidearen nondik norakoan berri izateko asmoz.

■ 1994. urtean hasi zineten ikastola berria eraikitzen. Urtebete baino ez da pasatu eta jada bertan zaudete. Pozik?

Oso pozik, noski, batez ere beti leku batetik bestera ibili garela kontuan hartzen badugu. Ikastola berri honetan, hain zuzen, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza dauzkagu. Gure asmoa, finean, eraikin honetan sei eta hemezortzi urte bitartekoak edukitzea da. Orain arte 14ra bitartekoak besterik ez ditugu izan. Hori dela eta, ikastola berri honetako atal bat hutsik zegoen. Bertan, orain, Haur Eskola daukagu, oraindik ez baitugu beraintzako eraikin berria egin. Hiru urtetan egin beharko dugu, hala ere, ezin baitira denbora gehiagoz hemen gelditu. Kiroldegi estalia ere egiteke dago oraindik.



Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria da Jose Luis Gorostidi.

ANDER GILLENEA

■ Zer-nolako aurrekontuari egin behar izan diozue aurre ikastola berria eraiki ahal izateko?

Orain arte 700 milioi pezeta sartu ditugu ikastola berrian. Hau da, diru horrekin aulario berria eta aurrealde eta atzealde urbanizatuak egin ditugu, hor sartuta kirol esparru irekia, baratza eta gure atal urbanoa. Hala ere, oraindik Haur Eskola eta kiroldegi estalia geratzen dira egiteke. Osotara, beraz, mila milioi pezetakoa izanen da aurrekontua, gutxi gora-behera. Aurrekontu honi aurre egin ahal izateko, aspaldi hasi ziren bertako gurasoak dirua biltzen. Nafarroako Gobernuak, halaber, 200 milioi pezetako laguntza eman digu. 1991. urtean egin genuen Nafarroa Oinez eta eskatu ditugun maileguen bidez, azkenik, egin ahal izan dugu ikastola berria.

■ Hamar hilabete eskasetan egin baduzue ere, aspaldi zenuten buruan gaur egia bihurtu den ikastola honen proiektua.

«Egoitza propioa edukitzea gure betiko asmoa izan da, baina 1991. urteko Nafarroa Oinez-ek eman zion benetako bultzada»

Bai horixe. Lehen bost urteetan bazter batetik bestera ibili ginen, Dominikoen egoitzara ailegatu ginen arte. Urte horietan guztietan gure eraikin propioa izateko ideia, noski, buruan izan dugu, baina egin ahal izateko baldintza zehatzak bete behar dira. Baldintza horiek guztiak ez ditugu orain arte bete. Gure asmoari benetako bultzada eman ziona, hala ere, inolako zalantzarik gabe, 1991. urtean Atarrabian egin genuen Nafarroa Oinez izan zen.

Administrazioaren inplikazioa ere oso garrantzitsua izan da guretzat.

■ Administrazioak zuen proiektuari eman dion laguntzarekin, beraz, kontent zaudete?

Bai. Hasieran 132 milioi eskaini zigun Nafarroako Gobernuak eraikin berria egiteko, baina haren garrantziaz eta eraginaz jabetu eta 200 milioira igo zuten dirulaguntza. Hala ere, Administrazioak eman dizkigun milioi hauek sinbolikoak direla uste izan dugu beti. Hau da, nire ustez, gure proiektua aurrera ateratzeko gai garela ikusten badu, hasierako dirulaguntza honen ondok gehiago etorriko dira. Nafarroako Gobernuak inbertsioaren % 50a ordaintzea espero dugu zehazki. Haur Eskola eta kiroldegi egiteko behar ditugun 300 milioi horiek Nafarroako Gobernuak emanen dizkigula uste dugu. Horretarako, jada, alderdiekin jarri gara harremanetan. Geure proiektuari eusteko eta be-

s o s l a i a

Aurtengoa Jose Luis Gorostidik Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako zuzendari izan betetzen duen 11. urtea da. Egoitza berriko bere bulegoko aulkian eserita, ikastolaren etorkizunari buruz baikor eta itxaropentsu ageri da.

Ikastolen munduan bere lehen urratsak, orde, ez zituen Atarrabiako ikastolan eman, Lizarrakoan baizik. Bertan ere zuzendari izan zen bost urtetan zehar, baina aitortu duenez, «denarik egin» behar izan zuen eta gizarte edo plastika irakaslea ere izan zen, besteak beste, bertan.

Lizarra eta Atarrabiako ikastolako zuzendari izateaz gain, Ikastolen Elkartearen ere lan egin izan du azken bost urteotan zehar Jose Luis Gorostidik. Zehazki, «Euskaraz bizi» proiektuko arduraduna izan da. Azaltzen duenez, «euskararen erabilera dituen arazoei aurre egiteko gogoeta eta ekintza programa» da «Euskaraz bizi».

rau sendotzeko gai garela frogatu dugu eta horrek izanen du eraginik.

■ Zuei 1991n bezala, aurtengo Nafarroa Oinezek bertako Argia ikastolari eman dio behar zuen bultzada. Tuteran euskararen egoera zein den kontuan hartuz, zer deritzozu bertan 100.000 lagun bildu izanari?

Tuteran nire ustez, gauzarik aipagarriena hain jende gutxi eta hain baldintza gogorretan egonik, 100.000 lagunek ematen duten lanari hain ongi aurre egin ahal izateko erakutsi duten gaitasuna izan da. Horrek txunditu egin nau erabat. Oso betebeharrak izan dute esku artean, baina oso ongi egin diote aurre. Antolaketa primerakoa izan da aurtengo Nafarroa Oinez-en, lan dotorea egin dute, benetan. x

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

